

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Kulturaren, kirolaren eta gizartearen arloetan 2024. urtean dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak onestea

Udal honek, Alkatetzaren 2024ko apirilaren 16ko 2024/211 Dekretuaren bidez, kulturaren, kirolaren eta gizartearen arloetan 2024. urtean dirulaguntzak emateko deialdiaren oinarriak onetsi zituen.

Bat etorri Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 9. artikuluan jasotakoarekin, argitaratu egiten dira oinarri horiek.

Eskaerak aurkezteko deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bidez argitaratuko da.

2024. URTEAN KULTURA, KIROL ETA GIZARTE ARLOKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO OINARRIAK

I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua. Oinarri hauen xedea

Oinarri hauen xedea da Aiarako Udalak 2024. urtean udal programak osatzen dituzten kulturaren, kirolaren eta gizartearen arloko jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko erabiliko duen prozedura arautzea. Dirulaguntza horien bitartez, interes publikoko edo gizarte intereseko jarduerak bultzatuko dira eta horri esker udalak bere jardun eremuetan dauzkan helburuak lortu ahal izango ditu.

Dirulaguntzei honako hauek aplikatuko zaizkie: Aiarako Udalak onetsi duen udal dirulaguntzak emateko prozedura arautzen duen ordenantza orokorra; otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei eta transferentziei buruzkoa; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa, eta aplika daitekeen legeria osagarria.

2. artikulua. Dirulaguntza lerroak, diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak eta dirulaguntzaren zenbatekoa

Eskatzaileek bi dirulaguntza lerro hauei heldu ahal izango diete:

1. Gastu arrunt eta inbertsioetarako urteko dirulaguntza; dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienez ere, oinarri hauen arabera dirulaguntza jaso dezaketen gastuen ehuneko 80 izango da.

2. Urtean zehar egiten diren jarduera eta proiektuetarako dirulaguntza; dirulaguntzaren zenbatekoa, gehienez ere, oinarri hauen arabera dirulaguntza jaso dezaketen eta 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra arte sortu diren gastuen ehuneko 80 izango da.

Dirulaguntza lerro hauek bi arlotan banakatu daitezke: gizarte-kultura, batetik, eta kirola, bestetik; dirulaguntzen kontzeptuak geroago zehaztuko dira.

3. artikulua. Aurrekontuko zuzkidura

2024rako luzatutako 2023ko udal aurrekontuko 330.481.000 partidaren kontura egotziko da gastua.

Partida horretako gehieneko kreditua, eta, beraz, dirulaguntza deialdi honetarako gehieneko aurrekontu zuzkidura 35.000,00 euro da.

4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen programak eta jarduerak

Oinarri hauek honako hauek arautzen dituzte:

4.1. Gastu arruntetarako eta inbertsio gastuetarako urteko dirulaguntzen deialdia.

Diruz lagunduko dira mantenuko gastu arruntak.

Elkarte guztiei diruz lagundutako gastu arruntek ezin izango dute aurrekontu partidaren ehuneko 25 gaintitu, eta, era berean, elkarrekin ezin izango dute 1.000,00 euro baino gehiago eskatu honako kontzeptu hauengatik guztiengatik:

- Lokalaren garbiketa, konponketa eta zaintze lanak.
- Ekipamendua edo materiala eskuratzea: lotura zuzena izan behar dute elkarrekin gauzatu-tako jarduerarekin. Ekipamendua edo altzariak erosiz gero, elkarrekin ezin izango du kontzeptu hori dela eta laguntzarik eskatu deialdi honen hurrengo lau urteetan.
- Aseguruak, dagozkion urtea adieraziz; salbu eta jarduera bat antolatzen kontratatzen direnak, halakoak jardueretarako dirulaguntzen lerroan eskatu ahal izango baitira.
- Lehiaketarako federazio fitxen gastuak; kirol elkarrekin kasuan, Aiaran erroldaturiko pertsona eta elkarrekin kideko.
- Goi mailako ziurtagiri digitalak, hala nola Izenpe edo Diruaren eta Zerga Zigiluaren Fabrikaren goi mailako ziurtagiria, lortzeak eta berritzeak sortutako gastuak, betiere elkarrekin ezin izango badira, ez partikular batentzat.
- Haurtzaindegi zerbitzuak, familia kontziliazioa erraztea eta elkarrekin kideek elkarrekin beraren bileretan edo deialdietan parte hartu ahal izatea helburua dutenak.

4.2. Urtean zeharreko jarduera eta proiektuetarako dirulaguntzen deialdia.

Elkarte batek, 2024an jarduerak eta proiektuak egiteko, gehienez ere 6.000,00 euro eska ditzake.

Dirulaguntza Aiarako herritar ororentzako diren eta ohiko bitartekoetan (udalaren whatsapp, udalaren web orria eta kartelak) publikitate egingo zaien jardueretarako bakarrik izango da. Jarduera iragartzeko kartela alde aurretik bidali beharko da, helbide elektronikoa honetara web@aiarakoudala.eus, herritar guztiei zabaldu ahal izateko.

Dirulaguntza jasotzeko, ezinbesteko betekizuna izango da eskatutako informazio guztia eranstea, bai eta diruz lagundutako jarduerak iragartzeko kartelen ale bana ere, zeinek irizpide hauek bete beharko baitituzte:

- Udalaren logotipoa.
- Euskara txertatzeko bete beharreko hizkuntza irizpideak (nahitaez bete beharreko irizpideak doaz honekin batera).
- Genero ikuspegia txertatzeko bete beharreko berdintasun irizpideak (hizkera eta irudi inklusiboak).

4.2.1. Diruz lagundu daitezkeen gastutzat joko dira honako kontzeptu hauengatik sortzen direnak:

<p>KIROL ELKARTEENTZAT NAHIZ ELKARTE SOZIOKULTURALENTZAT</p> <ul style="list-style-type: none"> • Elkartearen beraren jarduera kolektiboetara loturiko garraioa. Garraio gastu hauek lagundu ahal izango dira diruz: <ul style="list-style-type: none"> — Autobusa kontratatzearen gastuak. — Garraio publikoaren gastuak: autobusa, tren, taxia eta abar. — Gizarte, kultura eta kirol ekitaldietan parte hartzeko elkaratek, gutxienez lau lagun eramateko, auto partikularretan egindako lekualdakete eragindako gastuak. Elkartearen sozietate egoitza hartuko da bidaiaren irteeraren erreferentzia gisa, eta gehienez ere kilometroko 0,29 euroko gastua hartuko da kontuan. Ibilgailuaren gidariaren edo jardueraren antolatzailearen zinpeko adierazpena erantsi beharko da, ibilgailuaren matrikula, jatorria (Aiarara izan behar du), helmuga, kilometroak eta ibilgailuko bidaiarien identifikazioa jasota. • Animazio soziokulturaleko jarduerak. • Txokolatadak, lunchak, askari handiak, betiere dirulaguntza jaso dezakeen jarduera bati lotuta, eta 150,00 euroko gehieneko zenbatekoarekin. Honako hauek ez dira diruz lagunduko: litxarreriak, opil industrialak, gasdun edariak, azukredunak edo alkoholdunak, errekupeazio fisikorako glukosa behar den kirol probetan izan ezik. • Jai tradizionalak antolatzea (Olentzero, Errege Magoen desfilea eta beste batzuk). • Lanen edizioa nola formatu digitaletan hala paperean, Aiara ardatz nagusi izango delarik: gehienez ere, 500,00 euro, baldin eta lan hori udalerrian zabaltzeko konpromisoa badago eta irabazteko asmorik ez badago. Kasuan kasuko batzordean balioetsiko da gaia edo planteamendua oinarri hauen filosofiarekin bat datorren ala ez. • Elkarteak egiten duen jarduera batekin lotutako haurtzaindegi zerbitzuak, betiere jarduera hori herritar guztientzat irekita badago. • Profesionalen ordainsarien gastuak, jarduerak egiteko beharrezko egiturak instalatzean nahitaezko txostenak edo ziurtagiriak egitekoagatik (adibidez, puzgarriak, agertokiak...). • Diruz lagundu daitezkeen gizarte, kultura eta kirol jarduerekin lotuta agertokiak edo bestelako egiturak alokatzeagatik gastuak. 	
<p>KIROL ELKARTEENTZAT</p> <p>Kirol txapelketak, erakustaldiak eta mendi irteerak antolatzea, barnean hartuta jarduera gauzatzeko beharrezko diren antolaketa gastuak (anbulantziak edo osasun premiak) eta ekitaldi horietan ematen diren sariak. Baldin eta jarduera horietan sariak (inoiz ez eskudirua) eta garaikurrak ematen badira, horietarako eman daitezkeen dirulaguntza ez da urtean 1.800,00 euro baino gehiago izango.</p>	<p>ELKARTE SOZIOKULTURALENTZAT</p> <p>Gizarte eta kultura jarduerak (emanaldiak, antzezpeneak, hitzaldiak, arte eta kultura lehiaketak eta elkarateen jarduerari loturiko prestakuntza ikastaroak eta lantegiak). Hitzaldiak argazki erakusketekin batera egiten badira, justifikazioan erakusketaren irudiak aurkeztu beharko dira. Formatu digitaletan izan daitezke.</p>

4.3. Diruz lagun ezin daitezkeen gastuak.

Ezin da dirulaguntzarik eman honako jarduera hauen gastuetarako:

- Otorduak.
- Jarduera piroteknikoak.
- Lunch edo askari handiak, ez badira Airako herritar guztientzako jarduera soziokultural edo kirol jarduera baten inguruan antolatzen.
- Gabonetako ekitaldietako edozein eratako opariak, berdin diolarik nolakoak diren.
- Dietak.
- Sariak eskudirutan.

5. artikulua. Eskatzaileak

5.1.1. Irabazteko xederik gabeko edozein elkarte edo partikularrek eskatu ahal izango du dirulaguntza, 2024. urtean kulturaren, kirolaren eta gizartearen arloetan programa edo jardueraren bat sustatu edo gauzatu nahi badu, Aiara udalerrira osoarentzat onura publikoa edo gizarte interesa duten jarduerak sustatze aldera, eta honako baldintza hauek betetzen baditu:

- Egoitza soziala edo egoitza Aiara izatea.
- Pertsona juridikoa bada, haren estatutuek beren-beregi jasotzea haren xedea interes orokorrekoa eta zerbitzu publikorakoa dela eta irabazteko xederik gabe sortu dela.

– Udaletxe honetako erregistroan agiri bidez frogatu ahal izatea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela.

– Elkartearen ekintza eremua Aiaran egotea.

– Dirulaguntzaren onuradun izateko debekurik ez izatea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

5.1.2. Halaber, onuradun izan ahalko dira Etxaurren Ikastolako eta Aiaran egoitza duten ikas-tetxeetako IGEak, betiere deialdiaren helburuak badituzte.

5.1.3. Olentzero eta Erregeen desfilea egiteko dirulaguntzak eskuratu ahal izango dituzte administrazio batzarrek, baldin eta deialdian jasotako helburuak badituzte.

5.2. Debekuak: Ez dute dirulaguntzarik jasoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legean edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoan ezarritako betebeharrak betetzen ez dituzten elkarte edo entitateek.

6. artikulua. Eskaerak

6.1. Eskaerak aurkezteko epea: hilabetekoa izango da oinarri hauek ALHAOn argitaratzen direnetik aurrera zenbatzen hasita.

6.2. Argibideak eta eskaeren izapideak: deialdiari buruzko argibide guztiak eskura egongo dira udalaren web orrian (www.aiarakoudala.eus/eu).

Eskaerak Aiarako udaletxean jaso eta aurkeztu ahal izango dira.

6.3. Aurkeztu beharreko agiriak:

6.3.1. Pertsona fisiko batek aurkezten badu eskaera:

– NANaren fotokopia (dagoeneko udaletxean eman ez bada).

– Zinpeko adierazpena, elkartea mantentzeko edo jarduera hori egiteko beste erakunde publiko edo pribaturen bati beste dirulaguntzaren bat eskatzeari edo beste dirulaguntzaren bat jasotzeari buruzkoa. Erakundea, eskatutako zenbatekoa eta dirulaguntza eman den edo ez zehaztu beharko da.

– Administrazio eskumendunak egindako ziurtagiria, non jasotzen den eskatzaileak egunean dituela Gizarte Segurantzarekiko eta Foru Ogasunarekiko betebeharrak edo, bestela, eskatzaileak izenpetutako baimena, Aiarako Udalak bere ordeziurtagiria eska diezaion administrazio eskumendunari, hain zuzen, adierazten duena eskatzaileek egunean dituztela Foru Ogasuneko zergak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak (4. eranskina).

6.3.2. Elkarte batek aurkezten badu eskaera:

– Eskaera bere izenean edo elkartearen izenean sinatzen duenaren NANaren fotokopia (dagoeneko udaletxean aurkeztu ez bada).

– Elkartearen IFZren fotokopia, dagoeneko udaletxean aurkeztu ez bada.

– Elkarte Aiarako Elkarteen Udal Erregistroan alta emanda ez badago, izena eman beharko du dirulaguntza eskatzen duenean, eta horretarako agiri hauek aurkeztu behar ditu: erakundearen estatutuen fotokopia, legez eratuta eta Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan erregistraturik dagoela egiaztatzeko agiria, eta IFZren egiaztagiria.

6.4. Eskaera:

Hauek aurkeztu behar dira:

• 1. eranskina. Eskaera orokorra, behar bezala beteta eta izenpetuta.

• 2. eranskina. Gastu arruntetarako eskaera, behar bezala beteta eta izenpetuta. Elkartearen gastu arruntak eskatzeko.

• 3. eranskina. Urtean zeharreko jardueretarako eskaera eta 3.1 eranskina. Jarduera bakoitza deskribatzen duen fitxa. Urtean zeharreko jarduera edo programa adina 3.1 eranskin ale aurkeztu behar dira, behar bezala sinatuta.

• 4. eranskina. Datuak egiaztatzea. Kontsulta egitearen aurka egotea. Aurka egonez gero, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

Eskaera guztietan kontuan hartu beharko da, halaber, dirulaguntzen eta beste iturri batzuen, beste administrazio edo erakunde batzuen, babesleen eta partaideen ekarpenen bitartez lortzen diren finantzabideek, guztira, ezingo dutela gainditu aurkeztutako programaren kostua.

Lortutako diru sarrera horiek guztiak diru sarrera gisa ere jaso beharko dira dirulaguntzaren justifikazio kontuan.

Udalak egokitzat jotzen dituen argibide guztiak eskatu ahal izango dizkie entitate eskatzaileei, aurkeztutako eskaera hobeto baloratzeko.

Eskaera behar bezala eginda ez badago edo aipatutako datu nahiz agirietakoren bat falta bada, pertsona edo entitate eskatzaileari errekerimendua egingo zaio, 10 egun balioduneko epean akatsak zuzen ditzan, eta ohartaraziko zaio hori egin ezean eskaera besterik gabe artxi-batuko dela.

7. artikulua. Pertsona edo erakunde onuradunak dirulaguntzaren berri ematea

Dirulaguntza ematen zaien pertsona edo erakunde guztiak udal finantzaketa horren berri zabaldu beharko dute, udalaren logotipoa jarriz egiten dituzten material inprimatuetan (kartelak, liburuxkak, informazio orriak...), hedabide elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan edo idatzizko komunikabideetako iragarkietan. Horretarako, Aiarako Udalak udal logotipoa emango die pertsona edo erakunde interesdunei.

Gainera, euskararen erabileraren udal ordenantzari jarraituz erabiliko dira bi hizkuntza ofizialak, euskara eta gaztelania, diruz lagundutako programa edo jardueraren berri emateko egiten diren kartel, testu eta agirietan.

Nahitaez sartu beharko dira, halaber, genero ikuspegia txertatzeko bete beharreko berdintasun irizpideak. (Hizkuntza eta irudi inklusiboak).

Aiarako Udalaren dirulaguntzaz egiten diren jarduera guztien berri zabalduko da jardueraren eguna baino lehen, interesa duten guztiak parte hartu ahal izan dezaten. Jarduera iragartzeko kartela gutxienez zazpi egun lehenago bidali beharko da, helbide elektronikoko honetara web@aiarakoudala.eus.

8. artikulua. Onuradunaren betebeharrak

Hauek dira pertsona edo entitate onuradunaren betebeharrak:

– Dirulaguntzak emateko oinarri den helburua betetzea, proiektua gauzatzea, jarduera egitea edo jarrera izatea abian den urtean.

– Dirulaguntza ematen duen organoaren aurrean baldintzak betetzen direla justifikatzea, baita dirulaguntza emateko oinarrian izan den jarduera egin dela edo helburua bete dela ere.

– Dirulaguntza ematen duen organoak egiten dituen egiaztapen jarduketa guztiak onartzea, bai eta kontrol organo eskudunek, estatukoek zein erkidegokoek, finantzak kontrolatzeko eta egiaztatzeko egiten dituztenak ere. Horrelakoetan, eskatzen zaien informazio guztia eman beharko dute onuradunek.

– Organo emaileari jakinaraztea bestelako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak lortu direla diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko. Dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide horien berri jakin bezain laster jakinarazi beharko da, eta, nahitaez, jasotako funtsak nola erabili diren justifikatu baino lehen.

– Dirulaguntza emateko ebazpenaren aurretik, udalarekiko zerga betebeharren eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharren ordainketa egunean dagoela frogatzea.

– Jasotako funtsak zertan erabili diren egiaztatzeko agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol jarduketetarako beharrezkoak izan daitezkeen bitartean.

– Aiarako Udalaren euskarari buruzko ordenantzan ezarrita dagoena betetzea, programa edo jarduera iragartzean nahiz gauzatzean.

– Berdintasun irizpideak betetzea, eta, beraz, hizkuntza eta irudi ez-sexistak erabiltzea, jardueren berri ematean eta karteletan. Horretarako, udalak berdintasunaren arloko prestakuntza eta aholkularitza tekniko jarraitua antolatuko du elkarteentzat.

– Udalak berdintasunaren arloan antolatzen dituen prestakuntza jardunaldietara joatea, elkarteei laguntza indibidualizatua eta adostua emateko prozesuaren barruan, honako helburu hauekin:

- Hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egitea.
- Estatutuak aldatzea, genero ikuspegia jaso dezaten.
- Zuzendaritza batzordeak aldatzea parekideak izan daitezen.
- Elkarteen jardueretan indarkeria matxista eta mikromatxismoak prebenitzea.

9. artikulua. Balioespen irizpideak

Dirulaguntzak emateko kontuan hartuko dira irizpide hauek:

- Proiektuaren hedadura (jarduera egiteak zenbat pertsonari ekarriko dion onura).
- Entitate eskatzaileak bere jarduera eremuan erakutsi duen jarraitzeko gaitasuna eta egonkortasuna.
- Euskarazko jarduerak egitea.
- Eskatzaileak beste finantzabide batzuetara jotzeko zailtasuna izatea; eskatzaileak dituen baliabide ekonomikoak, eskatutako zenbatekoaren aldean, eta baliabide eta finantzabideak bilatzeko egiten duen ahalegina.
- Programaren eta proiektatutako jardueren bideragarritasuna.
- Aurkeztutako balantze ekonomikoa.
- Berdintasun eta dibertsitate irizpideak, kasu hauetan:
 - Diruz lagundutako proiektuak edo jarduerak genero ikuspegia kontuan hartzen badu diagnostikoan, helburuetan, jardueraren garapenean edo justifikazio memorian.
 - Jardueran kontuan hartzen badira emakumeen egoera, premia, interes, jomuga eta arazo espezifikokoak.
 - Jarduerak genero estereotipoak eta rolak aldatzen laguntzen badu.
 - Jarduerak zaintza lanak sustatzen baditu gizonen artean, edo aitek eta seme-alabek jarduerak elkarrekin egitea sustatzen badu.
 - Jarduerak haurrak batera zaintzeko sistemak aurreikusten baditu, gurasoek jarduera egitea ahalbidetzeko, eta jarduera egiten bada norberaren bizitza eta familiakoa bateragarriak izatea ahalbidetzen duten ordutegi eta lekuetan.
- Onuradunen gutxienez ehuneko 40 emakumeak badira.

10. artikulua. Ebazteko organo eskuduna

Dirulaguntza emateko eskumena alkate-lehendakariak izango du, Kulturako teknikariak txostena egin ondoren eta kasuan kasuko batzorde informatiboari horren berri eman ostean.

11. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epea

Eskaerak ebazteko eta pertsona edo erakunde eskatzaileei ebazpena jakinarazteko epea lau hilabetekoa da, deialdi hau argitaratzen denetik hasita. Dirulaguntza emateko ebazpenak nahiz dirulaguntza ukatzekoak jakinaraziko dira.

12. artikulua. Dirulaguntzak justifikatzea

12.1. Justifikatzeko epea:

Pertsona edo entitate eskatzaileek dirulaguntzaren justifikazioa beranduenez 2025eko urtarriaren 20an aurkeztu beharko dute. Epe horretan aurkeztu beharko dira dirulaguntza lerroei dagozkien faktura guztiak, ordainketak egin izanaren frogagiriak, jardueraren inguruko kartelak eta dagozkion eranskinak, behar bezala beteta eta izenpetuta.

12.2. Dirulaguntzak justifikatzea:

Dirulaguntzarako aurkeztutako aurrekontuaren ehuneko 100 justifikatu beharko da, eta ez udalak emandako diru kopurua bakarrik, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak xedatzen duen moduan.

12.3. Justifikazio sistema:

Justifikazioan honako hauek jaso beharko dira:

- 5. eranskina. Justifikazio orokorra, pertsona edo elkarte eskatzaile guztiek.
- 6. eranskina. Gastu arrunten justifikazio ekonomikoa, gastu arruntak eskatu dituzten elkarteek.
- 7. eranskina. Jarduera bakoitza deskribatzen duen memoria, jarduerak egiteko dirulaguntza eskatu duten pertsona edo elkarte eskatzaileek. Egindako jarduera bakoitzerako bat aurkeztu beharko da, behar bezala beteta. Jarduera bakoitzaren justifikazio eranskinak zer egin den jakiteko balio dute eta, hortaz, gertatutakoa zehatz-mehatz azaldu beharko da.
- 8. eranskina. Kilometroak justifikatzeko memoria, garraio gastuak eskatu dituzten pertsona edo elkarte guztiek; ibilgailuaren gidariaren edo jardueraren antolatzailearen zinpeko adierazpena erantsi beharko da, ibilgailuaren matrikula, jatorria (Aiara izan behar du), helmuga, kilometroak eta ibilgailuan doazen identifikazioa jasota.
 - a) Antolatzailea badago: elkarteak ekitaldira joan dela ziurtatzen duen agiria aurkeztu beharko da, eta elkarteak berak egindako beste agiri bat, honako hauek jasotzen dituena: ibilgailuaren matrikula, jatorria (Aiara izan behar du), helmuga, kilometroak eta joan direnen identifikazioa (izen-abizenak, NANA eta sinadura).
 - b) Antolatzaileak ez badago: elkarteak berak egindako dokumentua aurkeztu beharko da, honako hauek jasotzen dituena: ibilgailuaren matrikula, jatorria (Aiara izan behar du), helmuga, kilometroak eta joan direnen identifikazioa (izen-abizenak, NANA eta sinadura).
 - Egindako gastuen jatorrizko fakturak edo fotokopia konpultsatuak.
 - Federazio fitxen kasuan, laguntza eskaeraren hartzaile diren eta Aiaran erroldatuta egon behar duten pertsonen zerrenda.
 - Ordainagiriak: fakturaren zenbatekoa eskudirutan ordaintzen bada, nahikoa izango da kasuan kasuko merkataritza establezimenduak edo enpresak kobratu edo ordaindu izanaren zigilu bat jartzea eta, horren gainean, eskuz egindako sinadura, edo, bestela, enpresak sinatutako idazkia, identifikatzen duen fakturaren ordainketa eskudirutan jaso duela adierazten duena. Ordainketa banku transferentzia bidez egiten bada, egiaztagiria erantsi beharko da. Nahitaez banku transferentzia bidez egin beharrekoak dira 2.500,00 eurotik gorako ordainketak.
 - Jardueraren berri emateko erabilitako kartelaren, liburuxkaren eta abarren ale bat.

– Aiarako Udalaren dirulaguntza jaso duen elkarte batek, dirulaguntzaren ordainketaren ondoren jakiten badu jarduera horretarako beste erakunde publiko edo pribaturen batek emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, berehala aurkeztu beharko du udaletxean erakunde horren aitorten bat, behar bezala sinatuta, eta dirulaguntzaren zenbatekoa, diruz lagundutakoaren soberakina udal diruzaintzan sartzeko.

– Aurkeztutako fakturen guztirako zenbatekoa diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100 baino txikiagoa bada, edo diruz lagundutako proiektu zein jarduera gauzatzen ez bada, onuradunak horren berri emango dio udalari, gainerako dirua udal diruzaintzan sartzeko edo, bestela, emandako dirulaguntza murrizteko.

12.4. Batere justifikaziorik edo justifikazio nahikorik ez ematea:

Batere justifikaziorik edo justifikazio nahikorik ematen ez bada, jasotako diru kopuruak itzuli beharko dira, berandutze interesekin batera, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorren 37. artikuluko 1. apartatuan ezarritako eran.

13. artikulua. Ordainketa

Dirulaguntza bi zatitan ordainduko da:

- Ehuneko 80, dirulaguntza ematea ebazten den unean.
- Gainerako dirulaguntza, aurreko puntuan aipatutako justifikazioa aurkeztutakoan.

14. artikulua. Ez-betetzea eta itzulketa prozedura

Onuradunak dirulaguntza jasotzeko oinarri hauetan edo udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantzan jarri diren baldintzak betetzen ez baditu, edota aurkeztu beharreko datuak eta agiriak faltsutzen edo ezkututzen baditu, errebokatu egingo da dirulaguntza eta onuradunak itzuli egin beharko du jasotako zenbatekoa.

15. artikulua. Garapena eta interpretazioa

Oinarri hauen interpretazioan sortzen diren zalantzak alkateak ebatziko ditu, informazio batzordeak txostena eman eta gero.

Oinarri hauetan jasotzen den orotarako, Aiarako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza aplikatuko da.

Denek jakin dezaten argitaratzen da hau.

Arespalditza, 2024ko apirilaren 16a

Alkate-lehendakaria
PRUDENCIO OTEGUI ECHEVARRIA

Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

3.01

KULTURA, KIROL ETA GIZARTE ARLOKO DIRU-LAGUNTZA

1. ERANSKINA: ESKAERA OROKORRA

ESPEDIENTE ZK.*

ERAKUNDEAREN DATUAK

ERAKUNDE ESKATZAILEA		
HELBIDEA		
IFK	HELBIDE ELEKTRONIKOA	TELEFONOA

ESKAERA AURKEZTEN DUEN PERTSONAREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK		NAN
HELBIDEA		
HERRIA	HELBIDE ELEKTRONIKOA	TELEFONOA

ELKARTEAREN IBILBIDEA

ELKARTEAREN SORTZE-DATA	ELKARTEAK UDALERRIAN LAN EGIN DUEN URTE KOPURUA
-------------------------	---

BAZKIDEAK

BAZKIDE KOPURUA	EMAKUME KOPURUA	GIZON KOPURUA	AIARAR KOPURUA	AIARRAK EZ DIRENEN KOPURUA

AURKEZTUTAKO AURREKONTUA

ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZA OSOA

EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA*

ESKATUTAKO EDO EMANDAKO

BESTELAKO DIRU-LAGUNTZAK EDO DIRU-SARRERAK

Atxiki beharreko dokumentazioa:

Aurretiaz aurkeztu ezean atxiki beharreko dokumentazioa:

 Foru Ogasunaren betebeharrak eta Gizarte Segurantzari edo V Eranskinari dagozkienak eguneratuta daudela egiaztatzeko NANaren fotokopia Elkaratearen estatutuen eta IFZren fotokopia

Eskaera honetan jasotako datu guztiak egiazkoak direla aitortzen dut. Halaber, erabat onartzen ditut deialdiaren oinarriak, eta Udalarai baimena ematen diot eskaera honetan jasotako edozein datu egiaztatzeko, dagozkion Elkaratearen erregistro edo agiriak kontsultatuz

Data :

ESKATZAILEA (Sinadura):

* Udalak bete behar du

I.F.K. C.I.F. P0101100F ✉ BºLa Iglesia, 3 - 01476 Respaldiza - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus

Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

3.01 KULTURA, KIROL ETA GIZARTE ARLOKO DIRU-LAGUNTZA

2. ERANSKINA: GASTU ARRUNTETARAKO ESKAERA

ESPEDIENTE ZK.*

ERAKUNDEAREN DATUAK

ERAKUNDE ESKATZAILEA

ESKAERA AURKEZTEN DUEN PERTSONAREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK

NAN

LOKALAREN GARBIKETA-, KONPONKETA- ETA MANTENTZE-LANETARAKO GASTUAK

BESTE DIRU-LAGUNTZAK
EDO DIRU-SARRERAK

ELKARTEAREN JARDUERAREKIN ZERIKUSIA DUTEN MATERIALA ETA/EDO EKIPAMENDUA EROSTEA

BESTE DIRU-LAGUNTZAK
EDO DIRU-SARRERAK

ASEGURUAK: JARDUERA BAT ANTOLATZEKO KONTRATATZEN DIRENAK IZAN EZIK

BESTE DIRU-LAGUNTZAK
EDO DIRU-SARRERAK

LEHIAKETARAKO FEDERAZIOAREN FITXEN GASTUAK (lehiaketetan parte hartzen duten erroldatuak)

BESTE DIRU-LAGUNTZAK
EDO DIRU-SARRERAK

ZIURTAGIRI DIGITALAK LORTZEKO ETA BERRITZEKO GASTUAK

BESTE DIRU-LAGUNTZAK
EDO DIRU-SARRERAK

HAURTZAINDEGI ZERBITZUAK

BESTE DIRU-LAGUNTZAK
EDO DIRU-SARRERAK

AURREKONTUA GUZTIRA

GASTU ARRUNTETARAKO ESKATUTAKO
DIRU-LAGUNTZA

Elkarte batek ere ezingo du 1.000 euro baino gehiago eskatu kontzeptu guztiengatik.

EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA*

ESKATUTAKO EDO EMANDAKO

BESTELAKO DIRU-LAGUNTZAK EDO DIRU-SARRERAK

Data :

ESKATZAILEA (Sinadura):

* Udalak bete behar du

Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

3.01

KULTURA, KIROL ETA GIZARTE ARLOKO DIRU-LAGUNTZA

3. ERANSKINA: URTEAN ZEHAR JARDUERAK EGITEKO DIRU-LAGUNTZA

ESPEDIENTE ZK.*

ERAKUNDEAREN DATUAK

ERAKUNDE ESKATZAILEA

ESKAERA AURKEZTEN DUEN PERTSONAREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK

NAN

PROIEKTUAREN AURREKONTUA

KONTZEPTUA	KALKULATUTAKO AURREKONTUA	ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZA	BESTELAKO DIRU-LAGUNTZAK EDO DIRU-SARRERAK	EKARPEN PROPIOA
GARRAIOA				
KIROL LEHIAKETAK ANTOLATZEA				
KIROL LEHIAKETETARAKO SARIAK				
JARDUERA SOZIOKULTURALAK				
HAURRENTZAKO ANIMAZIOZKO JARDUERAK				
LUNCH				
JAI TRADIZIONALAK ANTOLATZEA				
LANEN ARGITALPENA (ARDATZ NAGUSIA: AIARA)				
HAURTZAINDEGI ZERBITZUAK				
TXOSTENAK EDO ZIURTAGIRIAK				
AGERTOKIAK EDO LOTUTAKO BESTE EGITURA BATZUK				
GUZTIRA	0	0	0	0

AURKEZTUTAKO AURREKONTUA

JARDUERAK EGITEKO ESKATUTAKO DIRU-LAGUNTZA

Elkarte batek ere ezingo du 6.000 euro baino gehiago eskatu kontzeptu guztiengatik.

EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA*

ESKATUTAKO EDO EMANDAKO
BESTELAKO DIRU-LAGUNTZAK EDO DIRU-SARRERAK

Data :

ESKATZAILEA (Sinadura):

* Udalak bete behar du

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ BºLa Iglesia, 3 - 01476 Respaldiza

☎ 945399013

☎ 945399331

✉ info@aiarakoudala.eus

🌐 www.aiarakoudala.eus



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

3.01 KULTURA, KIROL ETA GIZARTE ARLOKO DIRU-LAGUNTZA

3.1 ERANSKINA: JARDUERA GUZTIEN DESKRIBAPENA JASOTZEKO FITXA

Jardueraren izena	
Jardueraren hartzaileak	Haurrak: <input type="checkbox"/> Gazteak: <input type="checkbox"/> Helduak: <input type="checkbox"/>
Lortu nahi diren helburuak	
Jardueraren deskribapena	
Jardueraren berri emateko erabiliko den hizkuntza	Euskara: <input type="checkbox"/> Gaztelania: <input type="checkbox"/> Biak: <input type="checkbox"/>
Jardueran erabiliko den hitzkuntza	Euskara: <input type="checkbox"/> Gaztelania: <input type="checkbox"/> Biak: <input type="checkbox"/>
Aurreikusitako data	
ESPERO DEN PARTAIDETZA	Emakumeak: <input type="text"/> Gizonak: <input type="text"/>
Beste diru-laguntza batzuen diru-sarrerak	
Babesleen diru-sarrerak	
Partaidetza-kuoten diru-sarrerak	
Beste batzuk	
Aurreikusitako gastuak	

Jarduera bakoitzeko fitxa bat bete beharko da, eta hobeto baloratze aldera, informazio ahalik eta gehiena jasotzea gomendatzen dizuegu.



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

3.01 KULTURA, KIROL ETA GIZARTE ARLOKO DIRU-LAGUNTZA

4. ERANZKINA Datuak kontsultatu - Egiaztatzearen kontrakotasuna

IDENTIFIKAZIO-DATUAK	
Izena eta abizenak	NAN

ONDORENGOA NAIZEN ALDETIK	IKZ

Aiarako Udalak, eskuragarri dauden datuen bitartekotza-sistemen bidez, behar diren egiaztapenak eta kontsultak egingo ditu administrazioak bere esku dituen datuetan, zuk berariaz kontrakorik esan ezean (kasu horretan dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko duzu).

Egiaztapen horren aurka bazaude, markatu X batez

DATUAK EDO DOKUMENTUAK	UKO EGITEN DIOT	ARRAZOIA
Ogasunarekin ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen ziurtagiria (AFA)	<input type="checkbox"/>	
Gizarte Segurantzarekiko ordainketak egunean daudela egiaztatzen duen ziurtagiria	<input type="checkbox"/>	

Lekua eta eguna: Aiara
Ordezkiaren sinadura,

Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

3.01

KULTURA, KIROL ETA GIZARTE ARLOKO DIRU-LAGUNTZA

5. ERANSKINA: JUSTIFIKAZIO OROKORRA

ESPEDIENTE ZK.*

ERAKUNDEAREN DATUAK

ERAKUNDE ESKATZAILEA		
HELBIDEA		
IFK	HELBIDE ELEKTRONIKOA	TELEFONOA

ESKAERA AURKEZTEN DUEN PERTSONAREN DATUAK

IZEN-ABIZENAK		NAN
HELBIDEA		
HERRIA	HELBIDE ELEKTRONIKOA	TELEFONOA

JUSTIFIKAZIOAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- Jarduera bakoitzaren deskripzio-memoria (6. ERANSKINA)
- Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuen ondoriozko fakturak eta ordainkea-egiaztagiriak
- Kartelak, posterrak...
- Km-en kasuan (km-en eranskina eta bidaia bakoitzaren dokumentazio espezifiko)

ESKAERAN AURKEZTUTAKO AURREKONTUA

UDALAK EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA

JASOTAKO BESTELAKO DIRU-LAGUNTZAK EDO DIRU-SARRERAK

SORTUTAKO GASTUAK GUZTIRA

Egiaztatzen dut hemen jasotako datuak egiazkoak direla.

Data :

ESKATZAILEA (Sinadura):



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

3.01 KULTURA, KIROL ETA GIZARTE ARLOKO DIRU-LAGUNTZA

6. ERANSKINA: GASTU ARRUNTEN JUSTIFIKAZIO EKONOMIKOA

GASTUEN XEHAKAPENA:

LOKALAREN GARBIKETA-, KONPONKETA- ETA MANTENTZE-LANETARAKO GASTUAK

Kontzeptua	Hornitzailea	Faktura zk.	Faktura data	Zenbatekoa
Zenbateko osoa:		Kontzeptu honengatik jasotako bestelako diru-laguntzak		

MATERIALA ETA/EDO EKIPAMENDUA EROSTEA

Kontzeptua	Hornitzailea	Faktura zk.	Faktura data	Zenbateko osoa
Zenbateko osoa:		Kontzeptu honengatik jasotako bestelako diru-laguntzak		

ASEGURUA

Kontzeptua	Hornitzailea	Faktura zk.	Faktura data	Zenbateko osoa
Zenbateko osoa:		Kontzeptu honengatik jasotako bestelako diru-laguntzak		

LEHIAKETARAKO FEDERAZIOAREN FITXEN GASTUAK (lehiaketetan parte hartzen duten erroldatuak)

Kontzeptua	Hornitzailea	Faktura zk.	Faktura data	Zenbateko osoa
Zenbateko osoa:		Kontzeptu honengatik jasotako bestelako diru-laguntzak		

ESKATUTAKO AURREKONTUA	SORTUTAKO GASTUAK GUZTIRA	UDALAK EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA	JASOTAKO BESTELAKO DIRU-LAGUNTZAK EDO DIRU-SARRERAK



3.01 KULTURA, KIROL ETA GIZARTE ARLOKO DIRU-LAGUNTZA

7. ERANSKINA: JARDUERA BAKOITZAREN DESKRIPZIO-MEMORIA

Jardueraren izena			
Hartzaileak	Haurrak: <input type="checkbox"/>	Gazteak: <input type="checkbox"/>	Helduak: <input type="checkbox"/>
Helburuak:			
Deskribapena eta balorazioa:			
Jardueraren berri emateko erabilitako hizkuntzak	Euskara: <input type="checkbox"/>	Gaztelania: <input type="checkbox"/>	Biak: <input type="checkbox"/>
Jardueran erabilitako hizkuntzak	Euskara: <input type="checkbox"/>	Gaztelania: <input type="checkbox"/>	Biak: <input type="checkbox"/>
Jardueraren data			
Parte-hartzaileen kopurua	Emakumeak: <input type="text"/>	Gizonak: <input type="text"/>	
Gastuak guztira			
Lortutako diru-sarrerak	diru-laguntzak	babesak	kuotak
	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
	beste batzuk	<input type="text"/>	

GASTUEN XEHAKAPENA:

Kontzeptua	Hornitzailea	Fakturaren zk.	Fakturaren data	Faktura guztira	Eskura ordainduta
					<input type="checkbox"/>
					<input type="checkbox"/>
					<input type="checkbox"/>
					<input type="checkbox"/>
					<input type="checkbox"/>
					<input type="checkbox"/>
					<input type="checkbox"/>
		0			<input type="checkbox"/>
					<input type="checkbox"/>
					<input type="checkbox"/>
					<input type="checkbox"/>
					<input type="checkbox"/>
GUZTIRA				0	

Jarduera bakoitzeko fitxa bat bete beharko da, eta informazio ahalik eta gehiena jasotzea gomendatzen dizuegu. Lortutako diru-sarreraren kontzeptuan zenbatekoak eta iturriak zehaztu beharko dira.



3.01 KULTURA, KIROL ETA GIZARTE ARLOKO DIRU-LAGUNTZA

8. ERANSKINA: JUSTIFIKAZIO MEMORIA (KM-ak)

..... jaun/andreak, NAN zenbakia duenak, Egiaztatzen dut koadro honetan adierazitako gastuak egiazkoak direla:

Elkartearen izena:	Bidaiaaren lekua:
Elkartearen egoitza:	Bidaiaaren Data:
Bidaiaaren arrazoiak:	Antolatzailearen helbidea:
Ekitaldiaren antolatzailea:	Justifikatutako zenbatekoa (km *0,29)
Km kopurua	

ERABILITAKO IBILGAILUAREN DATUAK HONAKO HAUEK DIRA:

Ibilgailuaren matrikula:	Erabiltutako ibilgailuaren kopurua:
Ibilgailua erabiltzen duten pertsonen izen-abizenak:	N.A.N.:
Gida	Sinadura:
1	
2	
3	
4	

Eranskina hau bidaia parte hartu duen ibilgailu bakoitzeko bete behar da Antolatzailearen gonbidapena, deialdia eta kartelak aurkeztu behar dira.

ESKATZAI/LEA (Sinadura):

Data:



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

3.01 KULTURA, KIROL ETA GIZARTE ARLOKO DIRU-LAGUNTZA

9. ERANSKINA: EUSKARA IRIZPIDEAK

Udalak diruz lagunduta elkarteek egingo dituzten aktibitateak iragartzeko karteletan hizkuntzek izango duten agerpena estandarizatzeko asmoz, hizkuntza ofizialen normalizazioa lortzeko erabiliko diren hainbat irizpideren aplikazioa proposatzen da.

Udal dirulaguntza jasotzeko aukera izateko, Aiara udalerriko elkarteek egindako aktibitateen karteletan irizpide horiek betetzea exijituko da.

Hauek dira:

HIZKUNTZA IRIZPIDEAK

1. Euskararen agerpena bermatuko da egindako kartel, errotulazio, iragarki, inprimaki eta antzeko elementu guztietan.
2. Irakurketaren ibilbideari jarraiki, euskara gaztelania baino lehentsuago agertuko da. Hau da, testuak goitik beherako taxutzea duenean, euskarazko testua goiko aldean egongo da eta, horizontala denean, gaztelaniazkoaren ezkerrean.
3. Testua zutabetan antolaturik dagoenean, euskarazko testua ezkerrean agertuko da.
4. Erabiltzen diren grafien tamainan ezberdintasunik balego, euskarazko testua tamaina handieneko hizkietan egongo da.
5. Orrialde berean agertuko dira bi hizkuntzetako bertsioak, hots, ez da orrialde batean gaztelaniazkoa jarriko, eta beste batean edo atzeko aldean euskarazkoa, testu biak orri berean baizik.



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

3.01 KULTURA, KIROL ETA GIZARTE ARLOKO DIRU-LAGUNTZA

10. ERANSKINA: BERDINTASUN IRIZPIDEAK

ELKARTEETAN GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEKO IRIZPIDEAK

Hauexek dira kontuan izan beharreko irizpideak:

1. Hizkera. Hizkera inklusiboa izango da, denok, emakumeak eta gizonak bistaratzen dituena.
2. Irudiak. Irudietan, pertsonak agertzekotan, emakumeak eta gizonak izango dira, eta estereotipoei lotutako irudirik ez da erabiliko.
3. Elkarteen zuzendaritzetan, emakumeen parte hartzea bultzatuko da, gizonetako gehiago egonez gero.
4. Epaimahaiak ere parekideak izango dira, hau da, emakumeak eta gizonak egongo dira.
5. Ekintzak antolatzeko orduan, kontuan izango dira emakumeak egindako ekarpenak bistaratzea eta beraien parte hartzea bultzatuko da.

Aipatutako guztia gauzatzen laguntzeko, Aiarako Udalak prestakuntza saioa antolatuko du elkarteentzat. Horrezaz gain, Udaleko berdintasun zerbitzura deitu edo idatzi dezakezue:

cayala.miren@ayto.araba.eus. 686 587889